

## ANALISIA



Jean-René Etchegaray eta André Garreta erdikoak dira, hurrenez hurren.

## Iparaldearen orena heldu da



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: JEAN-PHILIPPE DÉJEAN

Euskal Hirigune Elkargoa eraikitze lanean ari da. Ipar Euskal Herriaren erakundetze politikoa baitezpadakoa da Euskal Herria izanen bada. Beharrezkoa eta ona da, besterik gabe, eraiki ahala zer errana ematen duelako. Errate baterako, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberako lehendakari André Garreta eta Euskal Elkargoko lehendakari Jean-René Etchegarayren arteko lehen kalapita ezagutu dugu garraio zerga dela-eta. “Ez ditugu politikarien hitzak entzun nahi, gezurrak baino ez dituzte sakatzen” erran du Garretak. Ez dago ados garraio politika finantzatzeko Elkargoak ezarri duen zerga-tasa sistemarekin. Etchegarayren hitzetan, “metropolien arazoak dituen hirigunea (Euskal Elkargoa) eraikitzen ari dira, eta hori egitea ez da aise”. Dei diezaiogun Hiriguneari Lurraldeak –Herri Elkargo–, eta hauxe ere ulertu dezagun: elkargoaren eraikuntza berau osatzen duten guztien artean ordaindu beharra dago. Ez dut Garretaren eta Etchegararen arteko kalapitari buruzko iritzirik emanen. Alta bada, hainbat datu ekarri nahi dut instituzio berriaren eraikuntza ulertarazi aldera.

Eragileen arteko lehen talka ezagutu dugu elkargoa eratzeko lehen lanetan. Zerga aplikatzeko sistemak eragin du tu-

pust hori. Alegia, elkargo edo kolektibitate bat osatzean, ekonomiaren eta identitatearen izaerak definitzea funtsezkoa da, baita ezinbestekoa ere adostasunean trenkatzea elkargoa tentuz osatuko bada.

Lapurdin 256.878 biztanle dira, Baxenabarren 31.784 eta 14.781 Zuberoan. Garraioa antolatzerakoan Lapurdiko Euskal Kosta-Aturri hirigune elkargoa eta Hego Lapurdi elkargo izandakoek izan dute ardura gehien orain arte. Engoitik, elkargoa osatu ahala, Lapurdi barnealdea eta beste bi lurraldeak integratu behar dira erkidego baten jitea hartuko duen elkargoa osatuko bada. Hots, lurraldea “harmonizatu” beharra dago. Garraio publikoa finantzatzeko diru publikoa behar da. Zerga lurralde osoan jasoko da. Alabaina, enpresak dira zerga horren erantzule nagusiak. Hamai-ka langiletik gorako enpresek ordaindu beharko dute garraio zerga. 10.000 biztanletik gorako herrietako enpresek egin dute ekarpena orain arte, Frantziako legearen arau egin ere. Ezagutzen al dituzue “barnealdean” halako tamaina duen herririk? Edo hamaika langile baino gehiago duen enpresa asko?

Euskal Hirigunea ez ezik, Herri Erkidegoa eraikitze tenorea heldu da, baldin eta Ipar Euskal Herririk izanen bada. ■

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Arizmendiarrietatik Fagor eta Eroskira



Juan Mari Arregi

Herritarrek aukera izan dute dokumental baten bidez Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitza eta lana ezagutzeko: *Arizmendiarrietak, gizon kooperatiboa*. 1941etik aurrera euskal kooperatibagintzaren barruan hasi zuen esperientzia berriaren sortzailer eta bultzagile izan zen Markinako apaiza, gazte katoliko batzuen eskutik, Mondragón Corporación Cooperativa izenez ezagutzen dugunaren bidez. Egun, Euskal Herriko eta Europako enpresa talde garrantzitsuenetakoa dugu. Bere enpresa ezagunenak dira Eroski, Laboral Kutxa eta Fagor.

Bokazio kooperatibo eta komunitarioak, Arizmendiarrietak *mesias*-a eramane zuten orduan zegoen enpresa-sistemaren ikuskera kapitalista gaudituko zuten proiektuak sortzera. Lehen urteetan bide hori segi zuten. Ez dakigu ordea zer esango lukeen gaur *gizon kooperatiboak* azken urteetan Eroskirekin eta Fagor Etxetresna Elektrikoekin gertatutakoa ikusiko balu. Enpresok, munduan hedatu eta lehiatu ahal izateko, borondatezko ekarpenak izan behar izan zituzten oso interes altuekin, eta hainbat urteren ondoren, ezin izan zieten betebeharre aurre egin. Fagorrek hondo jo zuen, eta milaka aurreztaile txiki eta langile euren dirua berrukuratu ezinik geratu ziren. Eroski oso zorpetuta dago eta bere aurreztaile txikiek ere arazoak dituzte.

Enpresa kapitalisten lehiakortasunaren eta globalizazio ekonomikoaren aurrean, kooperatibagintza eredu horrek huts egin al du? Bere kudeatzaileen akatsa eta porrota izan da ala sistema osoarena? *Gizon kooperatiboak* nola azalduko luke? Oniritzia emango al lieke Fagor eta Eroski porrotera eta zorpetze izugarria eramane zuten operazioei? Galdera horiek ez dira erantzuteko errazak, testuinguruak ezberdinak direlako. Baina badago erantzukizun larri bat.